

A15 - Marrazketa teknikotik industria diseinura ariketa praktiko baten bidez

Irudikapen-sistemek industria enpresetan duten garrantzia ezagutzea da ekintza honen helburua. Marrazketa teknikoaren edukietan oinarrituta, produktu baten garapenean zerin eragin duen eta zein fase ezberdinetan aplikatzen den erakustea da.

Ikasurtea

1. Batxilergoa

Data

Adosteko

Lantzen diren irakasgaiak
Marrazketa teknikoa

Jarduera motak

Online bilera adituarekin

Hizkuntza

Euskara

Irismen geografikoa

Araba

Bizkaia

Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Mondragon Unibertsitatea)

Curriculumaren edukiak

Marrazketa Teknikoko irakasgaiaren barruan, parte garrantzitsua da pieza baten bista diedrikoak (altxaera, oinplanoa, profila) eta bere akotazioa lortzen jakitea, baita, bista diedrikoetatik abiatuta, piezen perspektibak lortzea ere.

Diseinu Industrialia.

Zer ikasten dute ikasleek?

- Irudikapen-sistemak.
- Normalizazioa: akotazioa, kokizazioa...

Garapena

1. INDUSTRIA DISEINURAKO SARRERA ETA

ERRONKAREN AURKEZPENA: Adituak eskolan parte hartzen du bideokonferentzia baten bidez eta erronka bat aurkezten die ikasleei. Erronka horretan, besteak beste, marrazketa teknikoak industrian duen garrantzia erakusten da, hain zuzen ere, gelan ikusten diren kontzeptuak aplikatuz.

2. ERRONKA GELAN LANTZEA: ikasleek erronka lantzen dute irakaslearekin. Horretarako, ikasleek esku hutsez marrazten dute; plastilinan diseinatzen dute eta erabilera bat, arazo bat eta konponbide bat bilatzen dituzte diseinutik abiatuta.

3. ADITUAREN HITZALDIA ETA IKASLEEN PROIEKTUEN INGURUKO FEEDBACKA:

hizlaria hezkuntza-zentrora doa eta landutako erronkaren gaineko azalpena eta itzulketak egiten die ikasleei. Horretarako, prozesu osoa azaltzen du, arazotik edo erronkatik industrializazioraino, adibide errealak emanez. Azkenik, bere bizipenak eta ibilbide profesionala azaltzen ditu.

4. IKASLEEN BALORAZIOA: Ikasleek jarduerari buruz egiten duten balorazioa.